

## POXPOLO ETA MOKOLO.

A EREDUA, 6. MAILA: AZALPENA.

Testuak 256 hitz ditu.

LAGINA: 6 ikastetxe, 7 ikasgela, 123 ikasle.

**Testua:** Elkarrizketa da. Bi zati diferente ditu: elkarrizketa pailazo batekin eta beraiek egiten duten DVDaren azalpen txikia. Hitzen bat zaila egin ahal zitzaien. Hamar galdera egin ziren, horietatik 3k berariazko informazioa bilatzea zuten helburu; 1k, testua bere osotasunean ulertzea; 1k, interpretazio bat garatzea; eta 5k, testuaren edukiaren edo formaren gaineko hausnarketa egitea.

**Emaitza:** Batez besteko puntuazioa **4,81** izan zen.

Galdera bakoitzean erantzun egokia eman zuten ikasleen ehunekoa:

G1	G2	G3	G4	G5	G6	G7	G8	G9	G10
74,70	93,00	46,00	85,75	12,30	61,61	(*)	77,45	82,69	14,25

**Zuzenketak:** Erantzunen formatua batu egin da. Titulua argiago agertuko da. DVDren informazioa elkarrizketaren ondoren joango da. Zazpigarren galdera aldatu egingo da eta testuaren formaren gaineko galdera egingo da. 6 hitzen Hiztegia erantsi da.

### Ondorioak:

Aplikazioa egin ondoren, probak 10 galdera izan behar zituela erabaki zen.

Galdera horiek hurrengo trebetasun hauei dagozkie:

1T (informazioa bilatzea)	G1, G2, G5
2T (testua bere osotasunean ulertzea)	G3
3T (interpretazio bat garatzea)	G10
4T (edukiaren edo formaren gaineko hausnarketa)	G4, G6, G7, G8, G9

Puntuatu nahi izanez gero, galdera bakoitzaren balorazioa honakoa izatea proposatu zen:

G1	G2	G3	G4	G5	G6	G7	G8	G9	G10
1	0,5	1	1	1,5	1	0,5	1	1	1,5

Gutxienezko puntuazioa: **5**

Puntuazio horretatik behera irakurriaren ulermena ez da ontzat joko.

Aztertu egin behar da zein galderatan egiten duen hutsa eta zein trebetasun diren landu behar direnak.

---

(\*) Galdera berria da, eta ez zen aplikazioan testatu.